

OLENTZERO HERNANIN DA

“Umeeek ilusio izugarria daukate ni etortzeko; gurasoek ere bai”

■ Euskal Herriko txoko guztietara iristen da Olentzero, gorputz eta izen ezberdinekin ■ Badira inoiz erantzun-
go ez dituen galdera batzuk: adina, non bizi den... ■ Bihar etorriko da herrira, arratsaldeko 18:00etan.

IZEN askorekin ezagutzen da Euskal Herrian: olentzero, olentzaro, porron-doko, putierre, liginaga, sukubela, xiularo... Herri batzuetan arrantzalea, beste batzuetan ikazkina. Erlijioak azken jentil izendatu zuen, Jesus jaio zela esatera etorri zena. Guztiok dakigu zein den, baina, inork ez du ezagutzen.

■ **KRONIKA:** Urtero etortzen zara umeei opariak ekartzera. Zergatik?

OLENTZERO: Izugarri gus-tatzen zait umeeak pozik eta txundituta ikustea. Nabaritzen det gustoko nautela eta hori da estimatzen detena. Neronek gozatzen det. Ume guz-tiek estimatzen naute. Badira errezeloz begiratzen didate-nak ere, baina, denbora pixkat haiekin pasa eta denak goxatzen dira. Ume sentitzen naiz eta maitatua. Ez dago hori bezelakorik.

Ez det gogoan noiz hasi nintzan. Aspaldi, hori bai. Gogoratzen detena da oso nerbioso jarri nintzala. Orain mundial pasatzen det.

■ **Zenbat urte dituzu? Non bizi zara? Gauza asko dira ixilean daukazunak.**

Eta ixilean segiko dute. Grazi guztia kenduko lioke Olen-tzerori eta hori ez da ona. Umeeek ez naute erregalien-gatik bakarrik maite. Misterio bat naiz eta misterio izaten segi behar dut. Guraso bakoitzak konta dezala bere teoria; umeeek hitz egin dezatela el-karrekin eta bakoitzak egin dezala bere pelikula.



Olentzerok prest dauka astoa eta erregaliak astelehenerako.

■ **Erregeak, Papa Noel eta zu. Denak garai berean. Nola ikusten duzu zure etorkizuna?**

Oso seguru. Jendea nere aldeko apustua egiten ari da. Nik bentaja handi bat daukat: eguarri hasieran ekartzen ditut erregaliak. Nere opariak gozatzeko 15 egun daukate umeeek; erregeen opariak apenas gozatu ditzaketen. Hala ere ez det uste erregeak galduko diranik, denek iraungo degu noski.

Papa Noelek, berriz, Espainian lekua hartzea normala

da, han ez dagoelako Olen-tzerorik. Hemen kostako zaio.

■ **Ikazkina, astoan jeisten dena, mendian bizi dena..., inoiz modernizatuko al da?**

Nik uste det holaxe segi behar detela. Garai bateko modura bizitzeak lehen esandako misterioa haunditzen dit. Gehiago bizimodu hura ezagutzen ez dutenez. Zenbat eta bizimodu arrotzagoa orduan eta lilura haundiagoa umeentzat.

Pentsa, txupetea utzi ezin zuten 6-7 umeren txupeteak daukat etxean. Neregana etorri ziranean nik kendu eta

Olentzerok daukala pentsatzen dutenez, ez dute gehiago eskatu.

■ **Noiz zatoz Hernanira?**

Bihar joango naiz arratsaldeko 18:00etarako. Udaletxe aurrera azalduko naiz eta espero det harrera ona egitea. □

TXANTXANGORRI

Gerardo Beraza faborito Ehiza Txapelketan

■ GAUR da Ehiza Txapelketako bigarren buelta. Txakurrekin da, eta Uxoko Errekan eta Epeleerrek izaten da. Gerardo Beraza 200 puntuko aldearekin aterako da. Aurreko igandean Berazak 611 puntu atera zituen eta bigarrenak, Jose Manuel Loinazek 409. Beste hiru ehiztari 304-na puntukin gelditu ziren. Iaz, aurrengo bueltan 406 puntu atera zituen Arkaitz Santakruz gazteak. Txapela, ordea, Juan Otaegik eraman zuen oso buelta ona eginda. Gerardo Beraza faborito aterako da, baina, gora behera asko izan litezke.

OILAGORRA ASKO

Giroa ere halakotzea eta oilagor asko da bolada honetan. Bota ere dezente egin da. Txapelketan bertan bederatzita bota zituzten igandean, Tejada del Puertok bi gainera. Iaz, berriz, altxa ere bat bakarria egin zuten. □

ARRAUNA

Asanblea ostegunean

■ ARRAUN Elkarteak urteko batzarra egingo du datorren ostegunean: Biterin, 19:30etan. Arraun Elkarteak 4 puntu tratatuko ditu osteguneko asanblean: **bat**) 2001 urteko aktibitateak; **bi**) balantzea; **hiru**) datorren urterako plana, eta **lau**) 2002-ko aurrekontu proposamena. □

expert TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK - ETXE TRESNAK

ANEXO

Gabonetan eskaintza bereziak:
- PHILIPS BIDEOA, STEREO 29.900 pza.
- DVD PHILIPS 39.900 pza.

Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI



GasHernani



GasHernani
Zure etxerako
energia naturala
GAS NATURALA
Eguberri zoriontsuak opa
dizkizuegu!

Gudarien Enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20120 HERNANI

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Tailerrak: Laramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

● Peugeot 306 SV	TD 3 urte	1.675.000 pta
● Peugeot 206	Diesela	550.000 pta
● Peugeot 205	Gasolina	580.000 pta
● Peugeot 309	Gasolina	190.000 pta
● Ford Scort	16 balbula	550.000 pta
● Citroen AX	Diesela	390.000 pta
● VW Polo	Gasolina	300.000 pta
● Renault Express	Diesela	650.000 pta
● Land Rover	Diesela	175.000 pta

eta beste hainbat, 100.000 eta 200.000 pta artean...

■ ERRUGBIA

Hernanik gaur irabazten badu 4garren

■ Hernani-Gernika, Landaren 12:00etan ■ Lehen itzuliko azken partidua da.

HERNANIKO nagusien taldea ikusgarri ari da azken partiduetan. Liga hasiera kaxkar samarra egin bazuten ere, egindako lana fruituak ematen ari da, eta azkenaldian hernaniarren jokua nabarmen hobetu da.

LAUGARREN POSTUAREN BILA
Jokoan izan den hobekuntza sailkapenean ere ezagun du, azken tokietatik seigarrenera igo baitira. Gernikaren aurka gaurko partidua lehen itzuliko azkena da, eta irabazi ezke-

ro 4garren jarriko litzateke Hernani. Gaurkoa atzeratutako partidua da. Beste talde guztiek bukatu dute lehen itzulia eta Hernanik eskura du 4garren postua. Horretarako, Gernikari irabazi behar dio, bera baita, juxtu aurretik duen taldea. □

KRONIKA ESKUPELOTA TXAPELKETA

Bi partidua jokatu ziren atzo

■ Alvarez-Arruti 22 / Intxauspe-Goiburu 12; Tutu-Iturbe 22 / Joxe-Arozpide 15.

'Hernani' Musika Eskolako ikasleek 33 sari ekarri dituzte Arrasatetik

■ Akordeoi ikasleak ziren lehiaketan ■ Sariak: urrezko 15, zilarrezko 17, brontzezko 1.



Musika eskolako 23 umek irabazi zituzten 33 sariak.

ARRASATEN urtero egiten dute umeen akordeoi lehiaketa. Maila bakoitzean hiru sari egoten dira: urrezkoa, zilarrez-

eta 33 sari ekarri dituzte.

Hona hemen sarituen zerrenda. Aipatzekoa da Maddi Iradi lortu duela jaialdiko puntuaziorik altuena:

Urrea: Amaia Valero, Irati Sarasua, Iratxe Etxeberria (2), Iratxe Ollo, Janire Garin, Jon Iraola, Leire Aiape, M^a Victoria Irazola, Maddi Iradi, Maddi Ruiz (2), Oihane Erize, Sandra Téllez, Xavier Pavón.

Zilarra: Amaia Gastesi, Ane Aierbe (2), Edurne Garcia, Garazi Jauregi (2), Irati Sarasua, Janire Garin, Janire Urrestarazu, Joana Pavón, Leire Aiape, Leire Aldaregia, Leire Mendiluze (2), Maddi Iradi, Nerea Duroudier, Oihane Erize.

Brontzea: Izarne Artola.

Gabonetan ...PREZIO BEREZIAK

PREZIOS ESPECIALES

PREZIO BEREZIAK

20% OFF

YONE
boutique

Kale Nagusia 63 -Hernani-

Hipodromo etorbidea -Lasarte-

BADATOR OLENTZERO, BADATOR

Tximelota
Sariak - Rogalok

ZATOZ TXIMELETARA ZURE OPARIK AUKERATZERA
Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI

ARALAR
TABERNA

ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

■ FUTBOLA

Hernani Mutrikura 3 puntuen bila

■ Mutriku-Hernani, gaur, 15:30etan ■ Emakumezkoen ligan, Hernani-Antoniano; Zubipen 11:30etan.

HERNANI azken sailkatua bisitatzera dioa Mutrikura, joan zen astean etxean galdutakoa kanpoan eskuratu asmoz.

Hernani 3 puntuen bila joango da, sailkapeneko erdikaldetik (10garren da) gora egiteko.

■ NESKAK ETXEAN

Emakumezkoen taldeak Zubipen jokatu du gaur. Bisitari Zarauzko Antoniano izango du. Hernaniarren azken bi partidua irabazi egin dituzte, eta denboraldi hasiera ona ez bazuten egin ere, orain goruntz doaz. □

■ ZELAI BEROA

Mutriku azken sailkatua izan arren, ez du partidua erreza talde zuriberdeak. Mutrikuko zelaia herri erdi erdian dago, eta jende asko hurbiltzen da partiduetara, bisitariarentzat giro gogorra jarritz. Hala ere,

■ BOLEIBOLA

UPV Hernani Kantabriara urteko azken partidua jokatzera

■ UPV Hernanik Cabezón de la Sal-en jokatu du urteko azken partidua, bertako taldearen aurka. Partidu honekin bukatuko da lehen itzulia eta hernaniarrak partidurik galdu gabe eta lider moduan bukatu nahi dute. Partidua, gaur, 12:00etan. □

■ WATERPOLOA -EUSKAL A LIGA-

Santurtzi-Hernani, gaur, 20:15etan

■ WATERPOLOKO Euskal ligak ere asteburu honetan du urteko azken jardunaldia. Hernaniko A taldeak Santurtzin itxiko du urtea, gaur, 20:15etan. Neskak eta mutilen B taldea, dagoeneko oportuntan daude eta asteburu honetan ez dute partidurik. □

'Hernani 2002' Kronikaren kalendariora, salgai

■ Hernaniko Kronikak atera du egutegia. 2001 urtean zehar Kronikan atera diren 17 argazki osatu da aurtengoa. Honako puntu hauetan eskuratu daitezke: Zinko-Enea, Konde eta Plaza Berri kioskoetan; Dorronsoro okindegian, Antziola okindegian, Iurrettagoienan eta Etxeberriko Fronton tabernan. 500 pztan. □

IRAGARKI MERKEAK

■ Etxe bila gabiltza, erosteko. Gutxieneko 4 gela eta terreno edo terraza duena. Deitu 626-86 92 79

OKINDEGIA
ANTZIOLA
Eguneroko ogirik onena!

ANTZIOLA AUZOA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

JANTZIDENDA
LOHER
Emakume
Gizon eta haurrentzat

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Elkano 1, (Eliza atzekaldean)
Tel.943 555 003 - HERNANI

Xarobe
DELICATESSEN
SINCE 1983
Produktu Bereziak

Nagusia 17 • 20120 HERNANI
☎ 943 55 21 27
POSTA ELEKTRONIKOA: *xarobe@euskalnet.net*

Skoda Octavia. Bizi guztia

OCTAVIA eskura 1.950.000 ptatik. aurrera* (11.719,74 euro*)
*Penintsula eta Balearetako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 1.4 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

MENABI
Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943 40 42 43

BEGIRA OPTIKA

URBIETA 8, TEL.: 943 55 41 54 HERNANI